

ttipi-ttapa

1992.eko Martxoak 5

81. zenbakia

dohain banatzen da



**ESKOLA URTE GEHIAGO,
BAINA NON?**



NAFARROAKO HERRI - KIROL TXAPELKETAK

TXAPELKETA	EGUNA	TOKIAK	INSKRIPZIOAK
J. D. N. (Infantil eta kadete) • Eliminatoriak • Finala	Martxoaren 15tik Apirilaren 19ra Apirilak 26	Herriak Irurtzun	Otsailak 23
ARPANA TXAPELKETA Primera, neskak eta sub-20	Apirilak 19	Bera	Martxoak 15
INGUDE, GURDI, LASTO, TXINGAK, ZAKU eta AIZKORA (olinpiadak) TXAPELKETAK	Maiatzak 10	Elizondo	Apirilak 17
100 Kiloko HARRIA eta SOKATIRA 640 (semifinal)	Maiatzak 31	Irurita	Apirilak 12
SOKATIRA 640 (semifinal)	Maiatzak 16	Lesaka	Apirilak 12
SOKATIRA 640 (Finala)	Ekainan 14	Sunbilla	
SOKATIRA 600 (semifinal)	Uztailak 18	Elizondo	Ekainak 14
SOKATIRA 600 (semifinal)	Abuztuak 15	Etxalar	Ekainak 14
SOKATIRA 600 (Finala)	Abuztuak 29	Iruñea - Labrit	
SOKATIRA 680 (Finala)	Uztailak 25	Elizondo	Ekainak 21
EMAKUME eta SUB-20 (Sokatira-konbinatua) • Semifinalak • Finala	Azaroak 8 Azaroak 22	Berriozar Elizondo	Urriak 11 Urriak 11
HERRIZ HERRI Txap. • Ligilla • Semifinalak • Finala AIZKOLARI Txap. (1.) • Semifinalak • Finala	Uztailak 7tik Irailak 6 arte Irailak 12-13 Irailak 19	Herriak Irurtzun-Larrainzar Bera	Maiatzak 10
AIZKOLARI Txap. (2.)	Urriak 11 Urriak 23	Altsasu Elizondo	Abuztuak 30 Abuztuak 30
AIZKOLARI Txap. (2.)	Azaroak 13	Doneztebe	Urriak 4
BERTZE TXAPELKETA ETA JAIALDIAK	Uztailak 7 Abenduak 3 Ekainak 28	SAN FERMIN JAIALDIA LABRIT (errekorrak, etab) DONEZTEBE (Nafarroako selekzioaren aurkezpena)	

non - zer

-
- 4** **AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7** **HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8** **IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/23** **HERRIZ HERRI**
 Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarena, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 24** **ERREPORTAIA:** "Zenbat ikastetxe gure zonan eta non kokatuak irakaskuntza plangintza berrian", eskualdeko ikastetxeetako zuzendariekin solasean.
 Pello Apezetxea
-
- 28** **KIROLAK:** "Martxoaren 8an, Nafarroako Herri Kirol Federazioaren Zuhaitz plantaketaren eguna".
-
- 30** **MERKATU TTIKIA**
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85

Tirada: 5.000 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa.: 63 11 88

Faxa: 63 12 91

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txopereña, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton Erkizia, Juana Mari, Patxi Petrirena, Olhain Elkartea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldúa Argazkiak, Mattari, Fermin Alzuguren eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa* . **Laguntzaileak:** Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza.... **Inprimategia:** Gertu Kooperatiba Elkartea (Oñati) *ttipi-ttapa* aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak**SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061
OSASUN ZENTRUAK**

Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe	450300
Lesaka.....	637428/637336
Leitza	510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun	453039
Gartzain	580451
Oronotz-Mugaire	592024
Ituren	450183
Sunbilla	450283
Goizueta	514067
Igantzi	637755
Arantza	634131
Bera.....	630929 / 630036
Etxalar.....	635105
Urdazubi.....	599130

ANBULATORIOAK

Irun	630264/621106
------------	---------------

OSPITALEAK

Irungo ospitalea	614600
Nafarroako ospitalea	102100
SSko urgentzi zerbitzua	246750
Virgen del Camino	
erresidentzia	109400
Gurutze Gorria.....	226404

ANBULANTZIAK

Oitz	450242/450342
------------	---------------

DYA

Lesaka (larrialdia).....	(943)464622
Doneztebe (larrialdia).....	171717

FUNERARIA

Lesaka.....	637404
-------------	--------

SUHILTZAILAK

Oronotz-Mugaire	592044
-----------------------	--------

GARRAIOAK

Bidasotarra	630279
Baztanesa	580129
Leitzarain	515018

**HIRUGARREN ADINARENDAKO
ZENTRUAK:**

Elizondo	580730
Lesaka	637154
Bera	630261

ABERIAK:

Iberduero	450335/450336
-----------------	---------------

W Botikak

► **Martxoaren 7-8an**, Etxalar, Sunbilla eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Martxoaren 14-15ean** Bera, Doneztebe eta F. Iturralde (Elizondo).

W Dantzaldiak

► **ELIZONDO**, martxoaren 8an BASAKA-BI taldearekin.

► **ELIZONDO**, martxoaren 15ean JATOR taldearekin.

► **LESAKA**, martxoaren 8an JOXELU ANAIAK taldearekin.

► **LESAKA**, martxoaren 15ean IZOTZ taldearekin.

W Erakusketak**ARGAZKIAK**

► **BERA**, martxoaren 7tik 22ra bitarte, Kultur Etxean, «*Ilunpetik*» Martuteneko emakume presoek egindako argazkien erakusketa, Berako Kultur Batzordeak antolatua.

W Deialdiak

► **LESAKA**, martxoaren 6an Euskara Batzordearen bilera.

► **IGANTZI**, martxoaren 6an Euskara Batzordearen bilera.

► **BERA**, martxoaren 10ean Euskara Batzordearen bilera.

► **ETXALAR**, martxoaren 11an Euskara Batzordearen bilera.

► **ARANTZA**, martxoaren 12an Euskara Batzordearen bilera.

W Bota bertsoa**Xabier LEGARRETA**

(Goizuetako Bertso eskolakoa)

Gaia: Joxe irakasleak alperra deitu dizu

Doinua: Peñagarikanoren doinu berria

Estudiatzen ibili ohi naiz
beti uda eta negu
Aprobatzeko Jaungoikoari
ere eginaz erregu.
Maixuak gure burua letraz
eta zenbakiz erre du
ixil ixilik gaude gu.
Ez dakit nondikan heldu. (bis)
Astez maixuek lana nahi dute
Joxek ere lana nahi du
ta alper jaio ginadelako
alperrak jarraitzen degu. (bis)

Gaztetandikan sartuak ginen
gu hainbeste afizion.
Azken batean aurkitu ginen
gure Joxeren lekzion.
Errita eta bronka genuen
halako sakrifizion.
Bertsoari ekin nion
Bronkak aditu nizkion. (bis)
Joxeren ustez alperrak gera
bertsoaren ofizion
ta zozo beltzak bele beltz bati
ipurbeltza deitu zion. (bis)

AGENDA

Antzerkia

► **BERA**, martxoaren 14ean, larunbata, Kultur Etxean, gaueko 9etan «*Ellas*» izeneko antzerkilana TRASPASOS taldearen eskutik.

Zinema

► **DONEZTEBE**
Martxoaren 7-8an, «*Presunto inocente*».

Martxoaren 14-15ean, «*Amantes*».

► LEITZA

Martxoaren 6an, gaueko 10,30etan «*Corazón salvaje*».

Martxoaren 8an, arratsaldeko 4,30etan «*Regreso al futuro II*» eta 7,30etan «*Corazón salvaje*».

Martxoaren 13an, 10,30etan, «*Thelma eta Louise*».

Martxoaren 15ean, arratsaldeko 4,30etan «*Cenicienta*» eta 7,30etan «*Thelma eta Louise*».

Gastronomia

BABA FREXKUAK

Osagaiak

4 lagunendako:

800 gr. baba frexkua, tipula erdi bat, baratzuria, gatza, magra, txorizoa eta arraul-tzea.



Sagrario Matxiñenak emana
BETI JAI Jatetxea - BERA

Tipula eta baratzuria ongi xehetu eta babekin batera

egosten paratu 3 ordu laurden.

Zartagi batetan, baratzuri, magra eta txorizo pixko batekin refrito bat egin, gainetik botatzeko.

Plateran zerbitzatu eta apaintzeko arraultze egosi erdi bat gainean paratu eta on egin!

Baserriko feria

► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kiloko): 7.800 pzta. **Zerri gizona** (95-100): 187 pzta/kilo **Zerramak**: 95 -115 pzta./kilo bizirik.

► BEHIKIA

•Aretze gizenak:

Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra.....530
1.koa.....480
2.koa.....450

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal
Extra.....540
1.koa.....500
2.koa.....450
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 300 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 360 Pzta./Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 12.000 eta idixkoak 22.000 Pzta.
Mestizoak: urruxak 22.000 eta idixkoak 32.000 pzta

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.

«*La Suiza*»

Aseguro
mota
guziak

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

☼ Zure inguru klase guzitako insetuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz!

BERA
DESINFECCIONES

Tfnoa: (948) 63 01 55

- BERA



Europako lehena
ostalaritzarako
garbiketa produktuetan

Tfnoa: (948) 63 01 55 **BERA**

W 11 galdera Ilabur



► Txus Barrenetxe
Xorroxin Irratikoa

- **Irratigintza, zuzenean ala grabatuta?** Zuzenean.
- **Herrietako berriak ala dedikatoriak?** Herrietako berriak.
- **Jendea, irratia ren entzule ala partaide?** Partaide, interes gehiago agertzen duelako.
- **Xorroxin, Baztango ala eskualdeko irratia?** Eskualdeko irratia.
- **Dendan ala irratian lan egin?** Irratian.
- **Irrati municipala ala ez municipala?** Ez municipala, nahiz eta municipala izan behar.
- **Politikoen presioa ala publizitatearena?** Ez bat eta ez bertzea.
- **Irrati librea ala irratia konbentzionala?** Irrati libreak.
- **Programak, gazteentzat ala adineko jendearentzat egin?** Gazteentzat, gehiago menderatzen dut gaia, gaztea naizelako.
- **Meza saioak irratian, bai ala ez?** Ez.
- **Rock-a ala trikitixa?** Trikitixa.

W Musika



► Lurralde Kolpatuak
Baldin Bada
1992 Euskadi

Berriki kale-ratu du Irungo talde honek bere hirugarren iraupen luzeko diska, duela 8 urte musikagintzan hasi ondoren. Nabaria izan da hiru lanotan zehar emandako ebolutzioa. Hasierako "Lur azpian bukatuko duzue" lanean agertzen ziren trikitixa eta teklatu soinuak ez dituzue diska honetako 13 kantuetan aurkituko. Aldiz, aurreko diskan nabaritzen hasi zen, rock musika gogorra eta letren garrastasuna, oraingo "Lurral-



Katu, Dani, Iban eta Santi: Baldin Bada

de Kolpatuak" honetan hobekixiago zehazten dira. Halere, ez dute hasierako lanak alde batera utzi eta beraien lehen maketako bi abesti berreskuratzen dituzte, hauen artean «Txapelgorri»,

taldearen lehenbiziko abestia. Bertzalde, orain arte egindako kritiken arabera, aipagarria izanda baterian Arantzako Iban Zugarramurdik egindako lana. Batez ere, kontutan hartzen badugu

17 urte bertzerik ez dituela eta dagoeneko bi disketan parte hartu duela. Behin "Les Mécaniciens" taldearekin eta oraingoan "Baldin Bada"-rekin.

AITOR

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91



Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza

Bitirria, Tfnoa: 62 75 42
LESACA



EUSKALDUNA
JATETXEA

Tfnoa.: 63 03 92
BERA



«La Bidasotarra» autobus enpresak Nafarroako Gobernuari egindako eskariaren alde agertu dira Bortziritako udalak. Bertan, eguerditan Iruña - Bortziriak - Donostia elkartuko lituzkeen zerbitzu berri bat eskatzen da, orain arte ordu horretan Baztanesak egiten duena Donezteberaino bakarrik iristen baita.



Zonaldean kotxe eta ibilgailuen inspekzio teknikoa egiteko bertan zentro bat jartzea eskatu dute hainbat udalak, EAren mozioarekin bat eginez. Horrela, ez litzateke Iruñera joan behariko hau egitera.

Nafarroako Bertsolari txapelketa hilaren 8an hasten da

Aurtengoan, 24 partaidek eman dute izena



Martxoaren 8an ematen zaio hasiera aurtengo Nafarroako bertsolari txapelketari, bertan 24 lagunek izena eman dutelarik. Lehen kanporaketa Donazarren izanzen da arratsaldeko 4etan, bigarrena, martxoaren 22an, arratsaldeko 4etan Luzaiden eta hirugarrena hilaren 29an, 4,30etan Sunbillan. Bertan puntuazio hobereana lortzen duten 8 bertsolariek, apirilaren 5ean, Iruñako

Gaiarre antzokian burutuko dute finala, goizeko 11etatik aintzinerara.

Ohizko bertsolariekin batera, aurtengoan 3 gaztek ere parte hartuko dute. Iaz hasi zen Urko Atxutegi urruñatarra eta Estitxu Arozena eta Xabier Silbeira lesakarrak, lehen aldiz izena eman dutenak.

Aurtengo txapelketa honek, 2 milioietako aurrekontua du eta urtero izan ohi den epaimahaiak emanen du puntuazioa.

INFORMAZIOA:

- Nominak
- Aseguro Sozialak
- Lan-kontratu bonifikatuak
- Enpresa berrien sortzea
- Diru-laguntzak
- Errenta Deklarazioak
- Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non:** MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



IRAKURLEAK MINTZO

ESNEAREN ARAZOAK

Denon ahotan dago eta batez ere abeltzainen aho eta burutan esne-produkzio sektorearen egoera txarra, eta batez ere, orain, kuotak martxan jarri nahi direlarik.

Aspaldian ari zitzaizkigun kuotaren afera martxan jarri behar zela eta azkeneko, Europako Ekonomi Elkartek estatu espainiarra horretara behartu du ezin zelako horrela segitu. Lege hori martxan jartzeak ganaderoari ekarriko dizkion egoera larriak direla eta, administrazioetik dei egiten zaigu esplotazio-

ak uzteko, horretarako laguntzak eman; eta kezagarria da jendeak onartzen duela gure arazoa ez den zerbaiten kargu egitea, prest bait dago goitik erraten zaiona egiteko UAGN sindikatoak egin zuen billera batean ikusi zen bezala.

Gauza bat argi dago: estatu espainiarrak ez dauka esne soberanterik. Are gehiago, kanpotik ere ekartzen du. Orduan, zertaz ezartzen zaio kupo bat? Garbi ikusten da estatu espainiarra Europaren bertederok bat bezala ari dela gelditzen hango sobrantek honat ekarri eta hori guk ordainduz. Honen erran nahi du

arazoa dela gu EEEen sartuta egotea eta ez esne sobera produzitzea.

Soluzioa? Hagitz zaila da irtenbide egokia ematea arazo larri honeri baina nere ustez egiten ahal dugu zerbait gogor borrokatuz eta ahaleginak eginez geurea den zerbait kanpotar agintariek ez diezain guten kendu.

Honetatik bertze konklusio bat ere ateratu daiteke nahiz eta zoritxarrez jende aunitzek ez duen nahi horrelako gauzarik entzun eta da, Euskal Herriaren autodeterminazio eta subiranotasun falta. Geure buruaren jabe izanen bagina ez bait zuen zertaz horrelakorik

gertatu.



Joseba Miren Urroz
72.672.048

ZUBIETAKO UDALAN INFLUENTZI TRAFIKO? BAIETZ USTE DUGU

Udalak bere lokalen garbiketarako pertsona baten kontratazioa dela eta, Herri Taldeak haxe argitu nahi du:

—Joan den urtean lan honetarako bi eskeintza izan ziren eta aurten hiru. Bietan eskeintza garestienei eta pertsona berari eman zaio lana.

—Ttipi-ttapako korrespontsala eta aldeberean Udaleko

talde nagusiaren partaide denak aurreko alean erabaki hau justifikatu nahian galde egiten du “*influentzia trafikoa?*” nolabait posibilitate hori baztertuz kalidadearen aitzakiarekin. Honek zer esan nahi du eskeintza garestiena dela kalidade hobereana duena edo? Gure galdera haxe da: Nola demostratzen ahal da kalidadea, horretarako praktikarik ez bada egin?

Gure ustez erabaki hau ez da inondik inora zuzena izan eta gauzak garbi eta zintzotasunez egin behar dira gure herriaren onerako.

Herri taldeko
Kontzejalak



JAURENA MASTER

Sukalde mobleak – elektrogailuak

Rikardo Baroja 12 – ☎ 63 07 60 – BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA



MUSIKA DENDA
BERA ☎ 631059

- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

Labiaga eta Tantirumairu ikastolen pedagogi egitasmoaren alde agertu da Udalbatza

ROMAN HARRIBILAGA


Berako Labiaga eta Lesakako Tantirumairu ikastolen pedagogi egitasmoaren aldekotasuna adieraztea erabaki du aho batez Udalbatzak osoko bilkuran.

Era honetan erantzun du Udalak aipatutako ikastolek LOGSE Hezkuntza legearen garapenarekin sortuko diren aldaketak direla eta, duten pedagogi egitasmoa aintzineratu eramateko. Eskari bera Bortzirietako udal guztietan aurkeztuko da onartua izan dadin, eskualdeko Euskara Mankomunitatea barne.

Helburu nagusiak Pedagogi egitasmoaren arabera, helburua Bortzirietan derrigorrezko Hezkuntzaren bigarren maila ere euskaraz ematea da. Horretarako,



Labiaga eta Tantirumairu ikastolen egitasmoaren alde agertu da Udala



Paul Dutournier

ARTXIBOA

rako, Lesaka eta Berako 12 urte arteko ikasleak herrian bertan egonen lirateke eta gero 16-18 urte bitarte Beran kokaturiko ikastetxe bakarrean biltzeko.

Paul Dutournier-i omenaldia

Aurten garatzeko presatatu den kultur programan Paul Dutournier Sara herrian alkate izandakoari

eskeiniko zaion omenaldia dago iragarrita, urte luzez euskal abertzaleei eta Euskal Herriari emandako laguntza eskergaitzagatik.

Oraindik eguna zehaztu ez bada ere, apirila aldeira izanen omen da egintza.

Ordezkaritza bat Nikaraguara

Talde guztien oneritziarekin datorren maia-

tzaren 21 eta 22an Nikaraguan bertako erakunde baten antolatu duen Hiri Adiskidetu Nazioarteko Biltzarrera Udaleko ordezkari bat bidaltzea erabaki du. Hegazkinaren gastuak Udalaren kontura izanen dira eta gainekoak ordezkariarena.

B RADIO BIDASOA



expert

RADIO BIDASOAK errex jartzen dizkizu gauzak:

- * Zure elektrogailua, TB, bideoa, etab, aukeratzen laguntzen zaitugu.
- * Dohainik instalatu eta erabiltzen erakutsiko dizuegu.
- * 3 urtetarako garantia
- * Suterako eta lapurretaren aurkako aseguruua.
- * 36 hilabete bitarte dituzu ordaintzeko.

Kanttonberri 1, Tfnoa: 630377 - **BERA**

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Martxotik aintzineratu, boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 **BERA**

LESAKA

Asiloaren lan arazoei aurre egiteko erakundea sortuko da

Gai hau tratatzeko, kontzejalez eta herritarrez osatutako taldea egitea proposatu du Udalak

AITOR AROZENA

“Residencia de la Inmaculada” asiloak dituen lan arazoei aurre egiteko, zerbitzu publiko hau gestionatuko lukeen erakunde autonomo herritarra sortzearen beharra adierazi zuen ahobatez Udalak azken plenoan. Erakunde honetan arituko den langilegoaren gestioa, berriz, asesoria enpresa bati eskatuko zitzaien.

Gai hauek tratatzeko eta plenora aurkeztuko den Estatutoaren proiektua egiteko, Alkateak talde bat egitea proposatu zuen. Bertan, Udalbatza osatzen duten talde bakoitzeko kontzejalik zaharrena, alkatea bera eta gai honetan interesatuak leudeken lau herritar egonen lirateke.

Beti Gazteren

Biltzar Orokorra

Beti Gazte elkarteak urteroko Biltzar orokorra



Asiloa gestionatzeko erakunde autonomo herritar bat sortzeko asmoa agertu zuen Udalak
ARTXIBOA

eginen du martxoaren 7an, arratseko 8etatik aintzinerara, Alondigako egoitzan. Bertan aztertuko diren gai nagusienak, iaz egindako ekitaldiak eta kontuen balantzea, aurtengorako prestatuak dauden ekitaldiak eta aurrekontua, sozioen kuoten errebisioa, elkartearen egoitza eta Gida batzordeko kideen izendapena izanen dira.

Kontrolik gabeko ahuntzak kendu...

beharko dira mendieta-
tik apirilaren 1a baino lehen, artzaiek, alkateak eta Diputazioko mendi zelandoreak egindako bileran erabakitakoaren arabera. Halere, ahuntzak kontrolatuak dituztenak subentzioa jaso dezaketela, baita Gipuzkoako muga itxituraz itxiko dela, erran zen.

ttipi-flash

□ Mendiko pista eginen da Eskolamendi inguruan, lur komunaletan.

□ 2 milioietan eginen ditu J.A.S. enpresak frontoiaren instalazio elektrikoa berritzeko lanak.

□ Zonaldean, kotxe eta ibilgailuen inspektzioa egiteko zentrua eskatu zuen Udalak, EAk aurkeztutako mozioa ahobatez onartuz.

□ Egurditan, Iruñetik Donostiarako autobus linea paratzeko “Bidastarra”k Nafarroako Gobernuari egindako eskariaren alde agertu da Udala.

□ Bortziriak, Male-
rreka eta Bidasoalderako bertze albaitari edo beterrinario bat eta administrari laguntzaile bat kontratatzea eskatu dio Udalak Nekazaritza, Abelzantza eta Mendi-
dietetako kontseilariari, Arantzako Udalaren eskarriekin bat eginez.

EROSLE


Tfnoa: 63 72 64 - LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hobere-
na
Frexkuena zugandik hurbilago

XATURETXEA

FONDA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA



**GOIZUETA
KIROLAK**

Kirolak
Mendirako artikuluak

Beheko Plaza 10 LESAKA



★ **KIXKUR** ★
ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA

IRUBIDE

**OSTATUA
ERRETEGIA**

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

Autobusa herrira sartzea eskatu du Udalak

Astelehen, asteazken eta ortziralez

PELLO APEZETXEA

«Bidasotarrak» antolatu nahi dituen zerbitzu berriak bultzatzea onartuz gainera, herriraino sartzea eskatu dio Udalak: astelehenetan, 7etan ateratzen den Donostia-Iruñea; ortziraletan, arratsaldeko 7etan ateratzen den Iruñea-Donostia; goizeko 8,15etan ateratzen den Lesaka-Donostia, Etxalartik 8etan atera dadin, astelehen, asteazken eta ortziralez, arratsaldeko 7,30etan itzultzen dena

Aurtengo plantazioak

Negu honetan Nafarroako Gobernuak landatuko dituen arbo-



Horrelako josta leku polita, nola ez bada probextu?. Bidenabar gorpuzaren zaulitasun eta sendotasunerako baliagarri zaie. Ez da, ez, denbora galdua.

Argazkia: PELLO

lak122.240 dira, Egillun, Amezi eta Aierdin. Kostua, iaz neurtua, 35 milioitakoa. Bertze aldetik, Herriak 8.685.000 pezeta

gastatuko ditu, 7.500 landare sartzan, leku ezberdinetan eta aunitz mota edo klasetakoak: haritzak, gaztainak, bagoak, gereziak...

Lapurretak herrian

Badirudi lapurren bisi-taldia izan dela herrian. Gauza haundirik eraman ez badute ere, ez da intentzio faltaz izan, iduri duenez. Tristeena, etxeko atea irekiak edukitzeko gero eta beldur haundiagoa sortzen zaigula.

Hasi dira su ezkilak

Neguko hormateek bazterrak idortu dituztenean, oteak erretzeko aukera egunak etorri dira. Baita, oteak ez ezik ondo-ko pinadiak ere, kontu haundiz ez ibiliz gero. Dagoeneko ezkilek sutearen berri tristea bi bider eman digute. Urteko azkenekoak ere izanen ahal dira, agian!.



KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98

BERA

Euskara irakasle izan nahi duzu?

Deitu 637796 Tfnora

BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIRA



ARRANO



OSTATUA

Legarrea - **LESAKA**

KOXXKONTA



Sagardotegia zabalik

Sagardotegia Erretegia

Ezkontza, bataio, bileratarako leku egokia (200 pertsona)

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - **LESAKA**

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR



ARRATZUBI ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - **LESAKA**

IGANTZI

Bentako bidearekin bueltaka

Zubia moldatzeko proiektua aurrera eramatea ere eskatu zaio Nafarroako Gobernuari

OSKAR TXOPERENA

Berriro ere, eskatu zaio Udaletik Nafarroako Gobernuari zerbait egin dezan Bentako bidearekin. Aspalditxo aipatu genuen *tti-pi-ttapan* egoera penagarrian zegoela, ba berdin berdin segitzen du. Bide batez, Igantziko Bentako zubia moldatzeko egindako proiektua aurrera eraman dezan ere eskatu zaio. Bada ordua.

Plantazio ez-legala komunalean

Nafarroako Gobernuak mendizainek salaketa bat paratu omen dute herritar baten aurka. Harrizko errekan, herriko terrenoe-tan haritz amerikanoak,



ARTXIBOA

lazko argazkia bada ere, aurtengoan ere mus-eko txapeldunak lagun berberak izan dira

gereziondoak eta eltzaurondoak paratzeagatik. Plantazioa udalari baime-nik eskatu gabe egin da. Oker ez bagaude lehenengo arazoa da konbenioa sinatu zenez geroztik.

Mus eta partxiseko finalak

Giro izugarrian jokatu ziren Biltokiko mus eta partxis finalak. Partxisean Joxepa Etxeberria eta Fe-

lixa Goienetxek irabazi zituzten txapelak, Patri Arburua eta Begoña Etxeberriaren aurka. Eta musean berriz, joan den urteko irabazle berak, hau da, Emilio Mendigutxia eta Anizeto Etxeberria, hauek Patxi Txoperena eta Martzelino Etxeberriaren aurka. Ondotik afaria eta musika.

Iñautiak alaitsu

Ongi aski pasatu zuen jendeak aurtengo Iñautiak, gazteak batez ere. Kuadrila haundia bildu zen moztrotan ibiltzeko, gaztetxoak gehienak. Ilunabarra eta gaueko ekitaldietarako (afaria, musika, etabar) jende helduagoa ere hurbildu zen.

ALICIA

JANARIDENDA

Foruen Plaza 6, Tfnoa: 630799
BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

LAINO

HAUR JANTZIAK
OINETAKOAK
ETXERAKO ZAPATILAK
San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

BOAN TAILERRA

CITROEN Banatzailea

KOTXE BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - BERA

BORTZIRI

Itzea 4, behea - BERA
Tfnoa: 63 10 91

- * Asistentzia teknikoaren zerbitzua
- * TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
- * Bakarkako, kolektibo edota satelite bidezko antenak ere paratzen ditugu

EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko
toki egokia

Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

ETXEGARAI
BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta
banakakoak
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

Eskola kontseilua osatzea lortu da aurtengoan

Florencia Bikondoa izanen da presidente berria

JON LARRETXEAA

Azken ikasturtean hutsik gelditu bazen ere, oraingoan lortu da berriro Eskola Kontseilua osatzea:

Lehendakaria: Florencia Bikondoa; lehendakari-ordea: Margarita Madariaga; Diruzaina: Lucia Iparagirre eta idazkaria: Pili Alzuri. Bokalak: Rosa M^a Iribarren, Juanita Madariaga, Lourdes Goñi eta M^a Jose Larretxea.

Beraz, animo! Gainera orain izanen dute zereginik, irakaskuntzan aldaketak direla etabar...

HBren mozioa onartu zen

HBren 3 botei esker gainontzekoek abstenitu



Zereginik izanen du Eskola kontseilu berriak

zirelarik. Mozioan, Udalak Diputazioekiko duen dependentzia aztertzen da, izan ere Udalek edozer gauza egiteko Diputazioaren dirulaguntzaren menpe daudela eta hoiek eskasak eta gehienetan ez direla

premier arabera banatzen salatzen du, interes politikoen arabera baizik. Hau dela eta Udaletara bidaltzen den diru kopurua haunditzea, inbertsio programa bat zehaztea eta orohar, udal autonomi haundiago bat

eskatzen du, horretarako behar diren baliabideak landuz.

Idazkari laguntzaile berria

Josetxo Urreta Arribillaga izango dugu idazkari laguntzaile berria. Aspal-ditxoan lortu bazuen ere lanpostua, soldaduska zela eta orain hasiko da lan honetan. Hala ere, lehen hila-betean Gabinak segituko du lan horreta, trebatzen laguntzeko.

□ **Bildotsa** saltzeko azken urteotan izan diren arazoei aurre egin nahian, martxan jarri dute Bildotsa komertzializatzeko kooperatiba. Sozinoa egin nahi izanez gero, 12.000 pezeta pagatu behar dira.



S. Semper

Nekazal Tresneria

Salmenta eta konponketa tailerra

Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN

BERA n, 631238 Tfnoan, Agerra Industrialdean

SAROBEn
okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

Errekalde ostatua

Ortiziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630529 - BERA

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanazue Iruritako telefono honara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

SARA

Sarako bikoteak Hazparnetarrak garraitu zituen pasakan

Bertzalde, Olhain elkartearen Biltzar Nagusia martxoaren 13an eta 20ean iraganen da

OLHAIN ELKARTEA

Otsailaren 22an, Mattin Arrieta eta Koxe Oronozek osatu bikoteak garraitu zituen Hazparneko jokolaria-riak ttanto batez, 13 eta 12 Euskal Herriko pasaka xapelketaren azken finala laurdenetan.

Ondorioz, Frantziako xapelketan, erdi finaletan parte hartuko dute. Gainera Pariseko Trinketak gomiturik, Saratar jokolariek parte hartu zuten han antolatutako lehiaketa batean otsailaren 9an. Zortzi talderen artetik Saratarrak lehen atera dira.

Olhain elkartearen Biltzar Nagusia

Aurten Olhain elkar-


tearen biltzar nagusia bi aitadetan iraganen da. Martxoaren 13an 7etan Gazteen Etxean: aktibitate guzien bilduma eta biltzar nagusiaren antolaketa.

Martxoaren 20ean

8etan, Gazteen Etxean: deneri zabaldua. Oraidanik jakin arazten dugu Xalbador ikastegiak egiten duen kanpañari erantzuteko gisan, 20.000 liberako laguntza bat eskainia izan

dela, azken bilkuran erabaki bezala. Orroitz arazi behar da Xalbador ikastegiak eraikuntza berri bat egiten ari duela, gela eta barnategi berri batentzat.

Mattin Arrieta eta Koxe Oronozek Hazparnetarrak garraitu zituzten Euskal Herriko xapelketan



AMETS LIBURUAK

Liburu bildumen Banatzailea

Ikastola, eskola, elkarte,
kultur etxeetako
liburutegiak osatzeko
behar diren bilduma
guziak, prezio bereziekin

631267 tfnoan harremanetan jarri

COMERLAV
S.L.

HEZETASUNA... komertzio, biltegi edo almatzen, etxebizitza, garaje etabarretan...

DANTHERM lehorgailu berriei esker, hezetasuna kontrolatu eta kentzea garantizatua dago.

ETXE BERRIETAN

DANTHERM lehorgailuen bitartez, etxe berrietako paretak, zolak eta tetxoen lehortze prozesua nabarmenki azkartzen da, gero, pintatu, parketa jarri edota bertzelakoak egin ahal izateko.

Salmenta eta alogera

Joaquin Beunza 10, Tfnoa: 13 15 27

IRUÑEA

Pistak berritzeko dirua agindu dute Iruñetik

1989ko plan trienalekoa da proiektua

PATXI PETRIRENA

Nafarroako Gobernuak agindu du dagoeneko baserrietarako zenbait pista berritzeko eskatutako laguntza. Dena dela, Herriko Etxera horren berri eman badute ere, ofizialki presupuestoak erabaki gabe daudenez, pixko bat espetu beharko da.

Pistak berritzeko proiektu hau 1989an sartu zen "plan trienal"aren barruan. 124 milioi inguruko aurrekontua du, eta horietatik 94 agindu dituzte Nafarroako Gobernutik. Errekalde aldeko bidea, Istola alderakoa, Ordonborda alderakoa, Estamo



Tunelean 25 metro inguru zulatu dute dagoeneko.

alderakoa, Mendaurrekoa eta Pixarrenekoborda alderakoa daude sartuak proiektuan.

Bertso txapelketako saioa

Martxoaren 29an izanen da Sunbillan aurtengo

Nafarroako Bertso Txapelketako saio bat. Inguru honetakoak bildu dituzte saio horretarako, horien artean Manolo Arozena txapelduna eta aurten plazaratu diren Estitxu Arozena eta Xabier Silveira gazteak.

Zurrunmuru nahasiak

Haurren gibeletik norbait dabilen kontuak indar hartu eta zabaldu dira azken egunetan, baina gauza garbirik ez dago inon.

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - DONEZTEBE

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Zure publizitatea 15 egunero 5.000 etxetara zabaldu nahi baduzu, deitu 631188ra

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA - LABAIEN



AMEZTIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tf: 450028 - DONEZTEBE



SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

ASKIN OSTATUA

Bokadillo eta Plater konbinatuak

Elizagibela, Tfnoa: 45 00 52 - DONEZTEBE

BELARRA Kafetegia

Plater konbinatuak

Amezta 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE

DONEZTEBE

Zahar Etxeko Junta hautatua izan da

Bertzalde, obretako zaborrak botatzeko lekua non kokatu aztertzen ari da Udala



Herriko Etxe zaharraren erabilpena antolatzea izanen da Junta berriaren lanetariko bat

W ttipi-flash

□ **Bestetako** musika taldeak dagoeneko kontratatuak daude, Drindots, Los Clan, Montesblancos, Guagua eta Salduba hain zuzen ere. Guzuen kostua 1.850.000 pzt + aseguro sozialarena izan da.

□ **DY Arentzat** 25.000 pztatoko laguntza eman du Udalak.

□ **Galbarialde** uhaldeko ezkerrean Ugarteia etxea babesteko paretak egiteko Alfredo Zugarramurdiren eskaerari ezetza eman dio Udalak. Udalaren ustez, ur haundiak izanik ere, etxea ez dago arriskuan.

□ **Herriko Etxea** garbitzeko Arantxa Saldias Etxegia kontratatu du Udalak. Urriaren 30a bitarteko kontratua eginen diote oraingoz. Iazko abenduaren 12an egindako deialdira ez zen inor aurkeztu.

□ **Arantzako** Udalak egin duen albaiteko eta administrari laguntzaile baten beharri buruzko mozioa onartu du Doneztebe-ko Udalak.

TXEMA ALDABE

Oraindik Herriko Etxe zaharrean eginen den Zahar Etxearen proiektua Nafarroako Gobernuak onartu ez badu ere, aintzin hortan, jubilatuek izandako bileran, etxe honetako erabilpena nola eta zertarako izanen den bideratzeko Junta hautatu zuten.

Hauexek dira Juntako partaideak: Miguel Ibarrola, Margarita Belarra, Gerardo Grazenea, Juaní Zunzarren eta Felisa Altzugarai. Ordezkoak, berriaz, Vicente Migeltorena eta Jose Ariztegi.

Aipatzekoa da, otsaila-

ren 16an, hemengo jubilatuek izan zuten besta, 60ren bat lagun bildu zirelarik Ezkurra. Jatetxean bazkaltzera. Ondotik, Xinxaulo akordiolariak animatu zituena bazterrak, behar haundirik ez bazen ere.

Bertzalde, Jubilatuek zenbait bidai antolatu dituzte, Benidorm-era bitxanda eta martxoaren 11an 31 lagun abiatuko dira Cubara. Ongi pasa.

Obretako hondakinentzat zabortegia

Obrek eta lanek sortzen dituzten zaborrak botatzeko Herriaren lurretan za-

bortegi bat egiteko posibilitatea aztertuko du Doneztebe-ko Udalak.

Argi dago zabor hauek bazterrak zikindu bertzerik ez dituztela egiten eta ongi aprobetxatu beharrean inguru honetan bide eta erreka bazterretan botariak ikus daitezke.

Askin mendiko...

herri lurretan zulatze, landatze eta garbitze lanak Iturengo Lasaga anaiak eginen dituzte. Beraien eskeintza 1.605.703 pztatkoa izan zen. Zuloak egin eta landatzeko epea martxoaren 10 arte eta garbiketarako apirilaren 25 arte.



Estilo propioz egindako arropak

**San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE**


Mari Cruz
LENTZERIA
Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

Jauregiko belagiko kanalea moldatuko da

Nafarroako Gobernuak %68,6a ordainduko du

Pelualdea erreka kanalean sartua pasatzen da Jauregiko belagian, lur azpitik. Halere, kanale horretan duela zenbait urte berzte bi tuberia ere sartu ziren: Donamariako ur-zikinak biltzen dituen eta Doneztebera edateko-ura eramaten duena. Negualdean, errekek ekartzen dituen horbelekkin eta tuberi horiekin, "kanalea ito egiten

da eta ura belagira ateri egiten da". Hau moldatzeko, Pedro Ezkurra alkateak erran zigunez, "bi tuberiak metro batzuk behitiago sartuko dire, kanalea erreka-erendako libre utziz". Obra Doneztebe Migel A. Oiartzabalek egingen du. Subentziaz gainera, Donamaria eta Donezteko udalen artean ordainduko da.



Doneztebe eta Donamariako udalek ere finantziatuko dute obra

W ttipi-flash

□ **Gaztelu** eta Azkarraga artean, Pilar Mitxeo eta Fernando Mindegiaren lurretan, obretako hondakinak eta baita txatarra botatzeko zabortegia irekiko du Udalak. Animalia hilak ezin izanen dira bota.

□ **Amezket**a aldean, 10.000 bago eta 3.000 izei edo abeto Douglassen sartu berri dira auzolanean.

JUAINAS

Bizilagun bat gehiago. Horrela aditu dut! Eta azken urteetako zubitar berrien gisa, hau ere berezia. Orainarte azkena zena Ekuadorren jaio bazen, Atxongo Pilartxona eta Joanjona den Haizeak bereak egin ditu, mundua ezagutzeko gogoia Valtieran edo hor nonbait agertu bait zuen.

Goiztarra izanen da, dudarik gabe, pare bat hilabete aurreratu da dagoneko eta... aitak ez omen zituen guztiak berarekin eta Tafallan gelditzeko prest zegoenean, Maripilik ezetz, haurrak kapitalekoa behar zuela... eta hola izaki!

Odol berriaren indarrak probextuz, aurrera segi, eta holakoa ona egiteko ongi jatea baino hobea goren ez

dagoenez, sukaldaritzaren ikastaroa martxan paratu behar da, martxoaren hasieraz gerostik. Gustora hartuko nuke konbitea!

Hori bai, sukaldaritzaren onaren erdia, produktorearen kalitatea dela diote. Momentuz, Zubietan, kezkarik ez dugu, klenbuterol eta antzeko porkeriak ez bait dira erabiltzen. Eta baliteke, kalitatezko produktuak sortuz, gure lurri probetxu gehiago ateratzea, oraingoa benetan eskasa bait da. Horretaz jabetzeko, Biolur Navarrako Joxe Urangarekin antolatuta da bilera: martxoan 13an, 8,30etan, Beheko eskolan.

Eta martxari buruz ari garela, hori joaldunen pinta Zegaman! Eskerrak joariak eraman beharrean "dunbak" zirela.

"Aurrekoak silenzio-



soan"—Lizasoren hitzetan—eta atzekoak kolgajuen maneran. Muruak zioenez "Konpasa ikasi ezinean" aritu omen ziren... Telleria eraman balute... Eganak mugimenduarekin zuen peleia, zaila egiten omen zitzaion eta, bakarren batek esan omen diola "mugi zaitezte zutik larrutan bezala", eta ezta idea-

rik ere. Atzenduko zitzaion seguraski, kontsejeroari, larrua zutik eta laisterkan jo behar dela komentatzea—kasu horretan, gehiago ez sekulan—eta larruari "fuer-te" lotu behar zariela. Pentsatu besterik ez zuten egin behar, jakin bazekiten eta "Nafarraldean denak astoak direla".

LEITZA

Laister gas-sarea iritsiko da Leitzaraino

Oraingo, SarrioPapel-entzat bakarrik, ez etxebizitzatarako


ANTTON ERKIZIA

Sare-gasa, edo "gas Ciudad" Leitzaraino iritsi araziko ote zuten, aditua bagenuen. Orain, bidean dago.

Proiektuak dioenez, gas-sarea, Aresoko bidegurutzetik Leitzara landaz-landa dator. Alorrak ez hondatzearren, auzotarrek eta udalak berak ere proiektua aldatzea eskatu dute, gasa bide bazterretatik ekarreraziz. Gasa SarrioPapelentzat izanen da, eta "adar" bat industrialdearentzat utziko dute. Oraingo, pentsaezinezkoa da etxe eta sukaldetara ekarriko dutenik.

Sozio-Linguistika

ikastaro interesgarri bat hastekoa da. Batez ere, euskararen munduan dabilen biltzanentzat bideratua dago (maisua, zinegotzi, gurasa...). Zer eta zertarako ikastaroa?: hizkun-



Migueltxo saralegi, Arro baserrikoa



Ora in honela, ezagutuko al zenifuzke hor ageri direnak?

tzaren egoera (egoera legala, soziala, etxe eta kaleetako erabilera, tendentziak...) aztertu, eta ondo-

rioz, zer egin, nondik nora jo, zein neurri hartu behar-ko lirakeen ikasteko.

Txillardegi, Txepetx...

etortzekoak dira, eta ikastaroa eta hitzaldiak denontzat irekiak daude. (Ikus anuntzioa).

Pilota txapelketa

herrikoa, aurtengoan ere jokatu dela. Batzuk eutsi eta ekiten diote bere lan isilari. Eskerrik asko.

"Arro"ko Migueltxo

horrek ere kriston marka hautsi duela, aizu! Perurera bada norbait, baina bere neurriko zapata bertatik bertara harrapatu ote duen, begira egonen zarete. Migueltxok, marka hausteaz gain, harri bera ere hautsi, alajaina!

Adinakoentzat

hitzaldiak eta bazkaria antolatu dute Caritas eta Arkupeak-koek. Hitzaldiak (martxoaren 5, 6 eta 7an, eta Adintuen Eguna martxoaren 8an. Gainera, egun hortan bertan, emakumearen eguna ere da...



NON LEITZAN

NOIZ Otsailak 29 - Apirilak 15.
ASTEAZKEN eta OSTIRALETAN
19etatik 21ak arte.

Antolatzailea: Leitzako Udala
(Euskara Zerbitzua)
Laguntzailea: Nafarroako Gobernu

SOZIOLINGUISTIKA IKASTAROA

- GAIK:** "Euskararen egoera soziala eta legala"
"Un futuro para nuestro pasado" (teoria)
"Soziolinguistika aplikatua"
"Euskal talde eragileak"
"Udal elebakarrak"
"Hizkuntz politika: Udalak, komunitateak, Estatuak"

MATRIKULA: 2.000 pzta. (Langabetuak dohain).
INFORMAZIOA: 50 44 00 tfnoan (goizez)

Luis Ignacio Loiarte da "Gurasoak" elkartearen presidente berria

ESTEBAN AROZENA

"Gurasoak" izena daraman Andres Narbarte "Xalto" eskola publikoko guraso elkarteak bere junta berri zuen otsailaren 19an burutu zuen batzarrean, ondorengo bi urtetan Luis Ignacio Loiartek beteko duelarik Roke Tabernak utzi duen presidentearen lekua. Loiartez gain, ondorengo guraso hauek izan ziren hautatuak beste gainerako postuetarako: Idazkaria, Maite Arratibel; diruzaina, Jose Luis Arozena eta bokalak, Arantxa Arozena eta Kontxi Gamio.



Andres Narbarte "Xalto" ikastetxearen Guraso elkartearen aukeratu zen

Idazkari berria

Azken 4 hilabete hauetan udal idazkaria den Amagoia Etxaburu gaixo dagoenez otsailaren 10az geroztik Mikel Oskoz ari

da Udal-idazkari lanetan.

Alkatea Industria Kontseilariarekin

Miguel Jose Lekuona Nafarroako Gobernuko in-

dustri kontseilariarekin elkartu berria da. Bileran, «Asinko Nordia» enpresaren egoera larria aztertu omen zen. Nafarroako beste herri askotako esperientzia kontutan harturik, agroturismoarena izan omen daiteke oso irtenbide egokia gure herriarentzat, kontseilariaren ustetan behintzat.

TB errepetidorea 3 hilabete barru

Duela egun batzuk Udalak jakinarazi zuenez beste 3 hilabete barru martxan egon daiteke Telebista-errepetidore berria, kate guztiak bertatik ikusteko aukera izango delarik.

Herriko jendea zenbakitan

Joan den abenduaren 31ko datuen arabera

JUANA MARI SAIZAR

Joan den abenduaren 31an 316 biztanle zituen Aresok.

Azken urteotako martxari begiratu eta idea osoago bat izateko, 1900. urtean, 430 biztanle zeuden; 1910ean 424, 1920an 463, 1930ean 450, 1940an 436, 1950ean 421, 1960an 370, 1970ean 333, 1981an 297 eta 1986an 314.

Bestalde, 72 etxetan bizi da jendea eta horietatik 16tan maixterrak dira. Lanbideari dagokionez, 17 lagun dira nekazaritzatik bizi direnak, lantegietatik 71, zerbitzuetatik 20 lagun, etxeoandreak 65, jubilatutak 23 eta langabeak 3.

Ikasleei dagokionez, 15 dira Areso eta Leitziatik kanpo ikasten ari direnak, 8 Leitzen eta 29 Areson.

Bukatzeko, 316 areso-



1920an orain baino 147 lagun gehiago bizi ziren herrian

tarretatik 311 euskaldunak gara eta 5 erdaldunak. He-

rritik kanpo bizi direnak 36.

BAZTAN

Sute, istripu eta psikosiaz jotako hamabostaldia

Halere, Orakunde eta ñauteriek umore ona gordetzen lagundu dute

JOSEBA IGARABIDE

Oilar dantza, Egun ttuntun, ortzegun gizen orakunde eta ñauteriak. Guziak pasatu dira. Berexitasunen artean, Erratzuko Damak, Arizkungo Artza eta Ezkontza, Elizondoko karrozak...

Amaiurren, aldiz, aurreten ez dute ñauteririk egin. Iruritan bai, aspaldiko partez, ortziraletik igandera. Gainerako herrietan aintzinetik ospatuak zituzten.

Nekazariak,

EHNEK deituta, manifestazioa izan zuten Iruñean otsailaren 29an, esne kuotak eta nekazarien egoera larria ikusirik, eta zera eskatuz: Nafarroako nekazariak utzitako kuota bertan gelditzea eta aldiberean, kanpoko sobranterik ez sartzea.

Suteak mendi eta lantegietan

Rafael Lizasoainen zurgindegia kiskalita gelditu zen, eta ondokoa ere erabat hondatua. Iduri duenez, zerrautsatik sortu zen sua. Dena dela, laguntzak biltzeko, CAMPen kontu bat irekia dago.



Lizasoainen zurgindegia osotara kiskali zen



Ortegungizenean haurrek animazioz bete zuten aurtegoan ere karrika bazterrak

Suteak Baztango mendietan ere. Bertzeak bertze Lekarotz, Amaiur eta Zigan. Hautaz gainera 3 Ha. erre dira Apaiolarren, 7 Larratzun, 5 Intzulegin eta Alkurruntz aldean 6.

3 kamioi amilduak

Belaten hilabete batean eta txofer ingeles bat hila. Bistan da, segurantza neurri haundiagoak beha-

rezkoak direla Belateko maldan.

Psikosis izugarria

Haur bat sekuestratzen saiatu zirelaren "zurrumurrua" zabaldu zenean. Sunbilla, Arizkun eta Elizondon gertatutakoaren zehaztasunik ez dago. Hala eta guztiz, denok, aditutako kontuak batak bertzearen ahoan jartzen dugu.

ttipi-flash

Arizkun eta Erratzuko urak sanitarioki ez egokiak izateagatik, Sanidadekoek espedientea ireki diote Baztango Udalarari. Udalak bere aldetik, Arizkun eta Erratzuko alkateei papera bat bidali die zera erranez: multarik ordaindu beharko balitz herri horien bizkar egonen dela ordaintzea.

Karriketako argiteria aldatu, berritu edota luzatzeko estudioa eskatu berri du Udalak. Zehazki, Arraiozko Mardean aldakuntzak egiteko; Azpilkuetako Apaioa, Zuastoi, Arribiltoa eta Urratsunen berria jartzeko; Anitzen moldatzeko; Amaiurren dagoena luzatzeko eta Gartzainen baita.

Anizko alkateak Ballekoari zera eskatu dio: herritik pasatzen diren koitxeen belozidada mugatzeko neurriren bat hartzea. Udalak bere aldetik Nafarroako Gobernuari pasatu dio eskaria.

ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO

IPINGI ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939 ELIZONDO

Udaberriko telak eta arropak

Ehizi Federazioak bidalirik biologo bat izan ginuen herrian

Bertzalde, Sara, Urdazubi eta Zugarramurdiko kintoen besta, martxoaren 21ean "Armua"n

MARGARI eta KORO

Federazioak bidalirik herrian izan zaigu biologo bat, bentetan diren ehizi postuak legalizatzeko. Ohartu da ere zer putre pila dabilen Urbia mendi inguru hauetan eta harriturik gelditu da.

"Javieradaz"

Martxoa ailegatzen dela eta berriro "Javieradaz" mintzatu behar dugu. Aurtan ere, Andres, Txarli eta Jesusitok saiatu behar dutelako, Nafarroan zehar



Sara, Urdazubi eta Zugarramurdiko gazteak bilduko dira Armuan

ARTIXBOA

tatik oinez atera behar dutelako, eta gainera "Jaxinta" astoaren laguntzarik gabe (dirudienez huntakoan ernari gelditu da eta).

Kinto besta

Martxoaren 21ean "Armua" jatetxean ospatuko da Sara, Urdazubi eta Zugarramurdiko 67 urtetik 71 urterarte sortuak diren kintoen besta. Gan nahi duzenak, Armuan izena eman behar duzue martxoaren 19a baino lehen.

gurutzatuz Xabierrera ailegatzen. Bainan aurtengoa

zailagoa izanen dute oraindik Zugarramurditik ber-



FOTO ZALDUA

Argazkiak, Bideoa, Markoak

- Instalakuntza berriekin,
- roiloen errebelatzea "ordu bat" baino gutiagoan
- egiteko aukera, «Fujj» kalitatearekin

Elizondo Tf: 58 04 91

Doneztebe Tf: 45 03 64

ESTHER
LORADENDA

✿ Eskakizunak garaiz egitea gomendatzen dugu

Bergara auzoa, 580971-ARIZKUN

IPARLA
KIROLAK

- Kirolak orokorki
- Ekipamenduak eta trofeoak

Santiago 51 - Tfa: 58 05 85

ELIZONDO



Ezkontzetako
erreportaiak
argazkiak eta
bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure koloretako argazkiak
ORDU BATEZ
ERREBELATUAK
ditugu

ARROPA DENDA



CERVANTES
HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

OSKORRI
LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza



BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - **IRURITA**

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon
- Haritz eta gerezi egurretan egindakoak

URDAZUBI

Atsulai taldeko dantzariak Ainhoako Iñauterietan

Martxoaren lehenean berriz, Irunen dantzatu ziren

ALIZIA OLAIZOLA

Otsailaren 23an Ainhoako Iñauteriak izaki, Ainhoa, Zugarramurdi eta Urdazubiko gaztez osatutako Atsulai dantza taldeak igande arratsaldean dantzatu zuen Ainhoako karririkak kurrutuz, gaitero, txistulari eta Iturengo zanpanzarren konpainian. Eta honen ondoren, merendua izan zen dantzarientzat.

Txistu klaseak

Berriki hasiak dira Ain-



Ainhoako karririkak kurrutu zituzten Atsulaiko dantzariak

Artxiboa

hoan, bertako irakasle batek emanez eta Urdazubitik 3 neska gaten direlarik.

Akelarrean kinto besta

Otsailaren 29an, 32 eta

33 urtekoak kinto besta ospatu zuten, 25 bat lagun elkarretatuz. Gehienak Urdazubiarrak eta zugarramurdiarrak ziren. Besta animatzeko dantzaldia Christian akordeolariarekin izan zen.

Aurtengoz zerri hiltzeak gutitzen ari dira

Hemen batzuk abenduan hiltzen hasiak ziren eta oraingoz etxe gehienetan hilak dauzkate, negua baita sasoi hoberena hiltzeko.

AMAIUR

sukalde eta
bainu
altzariak

Rosa Seminario 13
Tfnoa.: (948) 45 04 00
DONEZTEBE

Vegasa®



EZKONTZAK

Juan Miguel Sukilbide Olazar eta **Xuri Martin Ibarra**, Elgorriagakoak, otsailaren 15ean.

JAIOTZAK

Carlos Alfredo Delgado Coll, Leitzan, urtarrilaren 3an.

Nerea Billabona Perurena, Leitzan, urtarrilaren 9an.

Aitor Lujanbio Zabala, Goizuetan, otsailaren 23an.

Peio Soudre, Saran, otsailaren 17an.

Haizea Bergara Baleztena, Zubietan, otsailaren 16an.

Mikel Olazar Baztarrika, Elgorriagan, otsailaren 10ean.

HERIOTZAK

Maria Iturrarte Retegi, Leitzan, otsailaren 17an.

Juan Marie Sarasqueta, Saran, otsailaren 19an, 81 urte.

Marie Iramuno Mariluz, Saran, otsailaren 17an, 85 urte.

Jesus Ariztegi Iantzi, Lesakan, otsailaren 23an, 83 urte.

Mikel Mindegia Telletxea, Ezkurran, otsailaren 16an, 78 urte.

M^a Concepción Arrieta Idiazabal, Sunbillan, urtarrilaren 29an, 81 urte.

Beatriz Apaindegia

Espezializatutako zentru akreditatua

Larruazalaren garbiketa, aurpegi eta gorputz tratamenduak, depilazioak, masaiak, sauna eta solarium.

Zatoz eta "Importancia de tu imagen" liburua oparituko dizugu

Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO

ttipi-ttapa 91 Urtekaria

ttipi-ttapa eremuko herri guzietako urteko berrien balantzeak, datu estadistikoak, kolaborazioak, kirolak, agroturismoaz mahai-ingurua...

*guzi-guzia argazki pila batez lagundua
Oraindik ez baduzu zurea erosi, mugi azkar!
azken banaka batzuk baino ez dira gelditzen eta!*

Zenbat ikastetxe gure zonan eta non kokatuak irakaskuntzarako plangintza berrian?

Hamabi urteak arte, 12etatik 16ak arte, 16etatik 18ak arte, Batxilergoa, Ofizioetarakoa

Irakaskuntzaren plangintza berriaren arabera, lehen maila hamabi urteetara arte izanen da. Bigarren maila, ertainekoa, 12 urteetatik 16etara, hau ere obligaziozkoa izanen delarik. Ondotik, hauek aukerazkoak, bi urtetako batxilergoa edo eta lanbide edo ofizio ikasteko «moduloak».

Non egonen dira haurrak plangintza berri hori hasten denetik aintzineraz?

Ze aldaketa izanen dituzte zonako ikastetxeek: Zeinetan emanen da 12-16 urtetako ertaineko irakaskuntza? Zeinetan bi urtetako 16etatik 18etara arteko batxilergoa? Zeinetan lanbide moduloak?


ttipi-ttapa zabal-tzen den eskualdeko ikastetxeetako arduradunek beren iritzia eman digute, ondotik doazenak.



KARMELE

Elizondoko San Frantzisko Jabier Eskola

▼ **HAUR** kopuruaren tikitzearekin, alde batetik, eta 12 urte artekoak herrietan gelditzearekin, bertetik, gure ikastetxean lekua soberan izanen da. Beraz, Baztango 12-16koa hemen eman liteke, batxilergoa Lekarotzen burutuz. Tokia izan, Lekarotzen bada denetarako, 12etatik 18etarainokoztat. Hori egokia ote litzatekeen da galdera. Ez bada, behinpein, ikastetxe haundiak antolatzea bilatzen, iduri duen bezala, arrazoi ekonomikoari begira, behar bada.



JOXE URROZ
Elizondoko Lanbide Eskolako zuzendaria

▼ **LEKAROZKOAK** eta Ikastetxe honek konberjentzi batera jo beharko genuela planteatua zegoen. Hemen teknologi moduloak jarriko genituzke: 1.

moduloa, zentratu gabeko ikasleentzat; 2. moduloa, 16 urteetan hasiko dena; eta 3.a, batxilergo ondorengoa. Gainera, reziklaje klaseak arratsalde, lantegietarako eta: informatika, soldadura, etab. Dena den, bileran hala planteatu genuen eta, koordinatu egin beharko genuke Ikastola, Eskola, Lanbide eskola eta Lekarotz, borroka ordez konberjentziara joz. Eta Oronozko Nekazal eskolak modulo bereziak eman beharko litzuzke, besteok eskola horren berezitasuna errespetatuz, orain arte egin dugun bezala.



KEPA DENDARIETA
Elizondoko Ikastolako zuzendaria

ASMOA zera da, obligatorioaren bigarren maila ere, 14-16koa, Ikastolan bertan ematea. Mapa eskolarraren berri jakitean hasiko gara antolaketa burutzen, gure zentroaren estudioa, dituen metro karra-tuak, legeak eskatzen dituen luze-zabalerak, etabar. Bertze ikastetxeei buruz, euskararekiko hartuko duten jarrera da gu gehien kezkatzen gaituena. Horren arabera, gurasoek estrategia ezberdina beharko luteke eraman, gizartean, guraso elkarteetan eta abar eraginez.



JOSU MARRUEDO
Lekarozko Institutoko zuzendaria

AURREKO Nafarroako Gobernuak zera erabaki zuen: *Lurralde honetako Batxilergo Institutua*, nahiz eta bi etxe eduki, Elizondoko Lanbide Eskola eta Lekarozkoa, *bakarra* izango da. Institutu bakar honetan BHS edo 12 urteetatik 16 urteetara, eta Batxilergo mota desberdinak, 16etatik 18etara doazenak, burutuko dira. BHS eta bi Batxilergo mota (Gizarte . Osasun eta Natur Z.) Lekarotzen egingo dira, Batxilergo teknologikoa Elizondon izango delarik, baita hezkuntz-zikloak ere, moduloka. Gobernu berria orain berrikusten ari da dena.



RAMON APEZETXEA
Oronozko Nekazari Eskolako zuzendaria

IKASTETXE honentzat bide bat, 14 urtetatik ikasleak hartzeko aukera izatea izanen litzateke, 14etatik 18etara arteko heziketa eskainiz; 16-18 urteetako lanbide moduloak eginez soilik, ia ezinezkoa bait litzaziguke segitzea. Non eta ez diguten laguntza berexia ematen, modulo berezi batzuk burutzeko: oihantzantza edo forestala, eta nekazaritza-mekanika. Nik Lekarotzen batxilergoa bakarra ikusten dut. Lanbide edo ofiziotarako moduloak, batzuk Elizondoko eskola profesionalean, eta San Martin ikastetxe honetan bertzeak, lehen aipatutakoak.



M^o JOSE GARTZIA
Doneztebeko Kontzentrazio zuzendaria

HAMALAU urte arte gure ikastetxean umeei segitzea ikusten dugu egokien, orain arte bezala. Hori egiten uzten badute, noski, ertainekoa bi ikastetxetan banatzea onartzen badute, alegia. Hamasei urte artekoa bertan egiteko bitartekoak behar direnez, ez da, behar bada, hain erraxa hemen burutzea; irakas-kuntzaren kalitatea zaindu behar baita. Bai, ordea, hamalau artekoa.



PATXI OTEIZA
Lesakako Irain Eskolako zuzendaria

NERE ustez, hamalau urte arte Lesakan eta eskola honetan ari behar lukete bertze aldean segitzen du



umeeak. Ondoren, 14-16 urteak bertze ikastetxe batetara joanez, Bortzirietako ikastetxe batetara. Eta batxilergoa?. 16 artekoa Bortzirietan egitea bidezkoa jotzen dut, Lesakan edo Beran, ikasleak urrunera mugi ez daitezen, baina, ahal bada, etxe batean, bi edo hirutan banatu beharrean. Batxilergo itzuliz, badira eritzi ezberdinak. Nik kalitateari begiratu behar zaiola uste dut, eta ez direla ikastetxeak nolana-hi ugaritu behar. Hori delata, Bidasaldeko hiru eskualdeek bakoitzak bere batxilergorako ikastetxea edukitzea gehiegizkoa dela uste dut.

Berako Jesusen Bihotza ikastetxea

▼ GUK 0-tik 16 urteak arteko heziketa daukagu gure asmoen barnean, hamabiak arteko lehen maila eta hamabietatik hamaseiak arteko bigarren beharrezko maila.




J. RAMON AMOROS
Arantzako Eskolako zuzendaria

▼ GUK, orain arte bezala haurrak 14 urteak artekoa hemen egitea nahi dugu. Urruntasuna dugu horretarako erabiltzen ahal dugun arrazoi nabarmena. Horrez gain, guk eskatzen duguna, ahal bada behinipehin, zera da, hemezortzi urte artekoa, dena, Bortzirietan egin ahal izatea. Ikastetxe hori Beran kokatzea iduri du logikoena, duen azpiegituragatik. Kalitatea eskaini beharko luke, hori bai. Badira, pentsatzen dut, bertze kezka ere, pribatuak hor baitira. Baina guk, eskola bezala, publikoa defendatu behar dugu. Norberak ikusiko du gero nora bidali umeeak.

M^a KARMEN LANTZ

Berako Eskolako zuzendaria

▼ GU eskola publikoa gara eta honen jarraian ariko da ondokoa, hura ere publikoa, berdin ari gaitzkeelarik batean nahiz bertzean. Bi ikastetxeak Nafar Gobernuarenak dira, eta bien artean ttikitatik hasita hemezortzi urteak harteko irakaskuntza burutuko da, zentro bakarra balitz bezala. Eta bertze lekuetako ikastetxe publikoek hamalau urteak arte emanen ote duten eta pentsatzen aritzea, ametsetan aritzea dela iduritzen zait. Arantza da horretarako nolabaiteko arrazoi duena, urruntasunarena.



JOSE M^a IRAZOKI
Berako Lanbide Institutoko zuzendaria


▼ BORTZIRIETAN eskola guztiak koordinatuta kalitatezko eskola nahi dugu. Bertzalde, ahalik eta denbora gehiena bakoitza bere herrian geldidadila; horretarako lege berriak ontzat hartzen du 14 urteak arte lehenengo mailako eskolan egotea, nahiz eta bigarren maila 12 urteetan hasi behar den. Ez genuke jaiotzen jaitziera ahantzi beharko: 150tatik 70tara Bortzirietan. Berako Institutuak erreforma martxan du eta bai Batxilergo berriak, bai Lanbide Heziketa berria irakasten ditu, horretan jarraitzeko asmoak mantenduz. Xeheki emango diren ikasketak: 12 (edo 14)etatik 16 urteetarako Bigarren Hezkuntza; 16etatik 18etara Batxilergoak; maila desberdinetako Lanbide Heziketa. Ikasketak euskeraz hasi dituenak, noski, euskeraz jarraituko ditu.



KARMELE



ELENA SANTESTEBAN
Bera eta Lesakako ikastolak




IRURTIA eta LARRAZ
Leitzako Eskola eta Lanbide Eskola



MARIBEL LUJANBIO
Goizuetako Eskolako zuzendaria

▼ **IKASTOLAK** hezkuntza proiektu ezberdina duenez, beharrezko hezkuntza urte guztiak osatu behar ditu guttienez. Horregatik ez du zentzurik ikastolan ikasketak hamabietan moztea, ikasgaiak ugaritzen diren momentuan preziski, eta euskarak garapen osoagoa eskeini dezakeenean. Gure ustez, gainera, euskarazko irakaskuntza garantizatuko duena, haur kopuruaren gora-behera guzien gainetik, Ikastola da, Gobernuak ez bezala. Bortzirietan Lesaka eta Berako ikastolak bateratuko ginatke, bigarren mailako urteak burutzeko, euskarazko irakaskuntza finkaturik daukaten bertze ikastetxeetara ere irekirik gaudela.



▼ **INGURUKO** herriekin harremanetan gabiltza, zeren denen arteko akordiora iristen ez bagara, ez baita ikaslerik izango. Horregatik bildu berriak gara eta berriz bildu beharrak Leitzara, Goizueta, Areso, Ezkurra, Jauntsaras, Lekunberri eta Betelukoak, ea zer interesatzen zaien ikusteko. Legeak bestela esaten badu ere, guk zera proposatzen dugu: hamalau urte artekoa herrietan mantentzeko eskaera amankomuna herri guzietan egin, eta ikasleak mugitu beharrean irakaslegoa mugitu, gaur bertan gero eta gehiago gertatzen ari dena, bestalde, gimnasia irakasle, logopeda etabarrek. Hamalauetatik aurrerakoa, unibertsitate artekoa, Leitzan eginen litzateke, eta honetarako arrazoi nagusia zera da, Leitzan azpiegitura hobea dagoelako, ikastetxe, etabar.

Azken momentuan, Irurtiak, eskolako zuzendariak adierazi duenez, "guzti hau deusetan gelditu da, herriek ez bait dute ontzat hartu proposamena".

▼ **GURE** asmoak, gurasoekin eta hitz egin ondoren, zera izanen lirateke, hamalau urteak arte umeak hemen bertan segitzea, eta gero hamalauetatik aurrerakoa Hernani edo Donostia aldean konpondu. Zergatik Gipuzkoa aldera jo? Ez da ahaztu behar Goizuetakoekin batera Aranoako ere badaudela, eta Aranotik Leitzara 33 kilometro direla. Bestalde, umeek Hernanin ikasteko aukera gehiago izanen dutelako ere bai. Dena dela, azkenaldian gurasoen aldetik beste eskabideak ere azaltzen ari dira, zera alegia, hamasei urteak arte hemen egitea. Horretarako prolema haundiena irakasleena da; guk daukagun irakasle interino mordoa lizentziatua izatea lortuz gero, soluzionatua legokeena.

Ideiarik nabarmenenak

Ikastetxez ikastetxe bildutako eritzi guzien artean badaude nabarmenak diren zenbait ideia:

▶▶ **Ikasleak** hamalau urteak arte orain dauden ikastetxeetan mantentzea

▶▶ **Umeak** ez mugitzea hainbertze, (adibidez, Bortzirietatik Lezarotzerako joan etorrian ibiltzeak, kurso oso bat gehiago suposatzen du denboran). Ikasleen ordeztu irakasleak mugiaraztea.

▶▶ **Irakaskuntzaren kalitatea** zaintzea, bai irakaslego zein tresneriari dagokionez.

▶▶ **Ikastolen arazo** berezia, euskararen egoeraren ondorioz.

Gaia gori-gorian dago momentu honetan. Informazio bilketa bukatzeko daukagunean, Hezkuntza Zuzendariak, Markotegi jaunak, Baztan aldeko ikastetxeetara bisita burutu du bainan ez du argitu irakaskuntza plangintza berriaren arabera zonaldeko zein ikastetxetan emanen diren ikasketak mota berriak.

PELLO APEZETXEA

Martxoaren 8an, Nafarroako Herri Kirol Federazioaren Zuhaitz Plantaketaren Eguna

Elizondoko Amezti parajearen burutuko da aurtengoan


Nafarroako Herri Kirol Federazioak joan den urtean hasitako ohiturari jarraituz, aurten ere bertako zuhaitzen plantaketa eguna ospatuko du. Zehazki, Baztango Ameztiko (Baztango mendira igotzen) lur eremuetan 1.000 bagondo plantatuko dira.

Herri Kirol Federazioak, dei egin die kirolari, mendizale eta naturazale guztiei parte har dezaten ekitaldi honetan. Horretarako, nahi duenak bere izena eman behar du Doneztebeko Federazioko bulegoan martxoaren 6a baino lehen edota 450900 telefonora deituz.

Goizeko 8,30etan Elizondoko Balleko Etxearen aurrean egon behar da, bakoitzak bere aitzurra eraman behar duelarik. Plantaketen ondotik, Amaiurko elkartean bazkaria izanen da, Zubietako Jon Mikelen trikitixak alaituko duelarik.

Herri Kirol epaile elkartearen sortzea

Nafarroako Herri Kirol epaile elkartea Martxoaren 28an sortuko denez, Nafarroako Herri Kirol federazioak dei egin du epaile izan nahi duten pertsonen beren izena eman dezaten Doneztebeko bulegoan (450900 telefonoan) mar-



Aizkolari jaialdietarako enborrak moztu ez ezik, arbolak landatu ere egin behar dira Herri Kirol honek aintzinerara segi dezan

txoaren 20a baino lehen, horrela onartuak izan daitezzen.


Federazio beretik adierazi digutenez, elkartea sortuta gero kapazitazio

ikastaro batzuk antolatuko lirateke, epaile berriak bertan trebatu ahal izateko.

Harri jasotze, lasto eta gurdi altxatze ikastaroak, martxoaren 29an egingen dira

Martxoaren 29an, seguraski Elizondoko Lanbide eskolan egingen dira harri txikian, lasto eta gurdi altxatze ikastaroak, "kirolari eta monitorea orokor batzuk ikasteko".

Ikastaro honen ardatza "praktikoa" izanen da, batez ere teknika hobetzeari begira eta interesatuak, federazioan izena eman beharko dute, martxoaren 25a baino lehen.



Berako Pilota txapelketaren finalak jokatu ziren

Guztira 43 bikotek parte hartuz

Berako XIX. Pilota txapelketaren finalak jokatu ziren otsailaren 23an Eztegarra pilotalekuan, urtero bezala Gure Txokoa elkartearen antolakuntzapean eta zenbait merkatal etheen laguntzaz.

Hasiera batean, 43 bikote apuntatuak zeuden (25 eskuz binaka, titkien mailan eta 18 haundietan, larruzko zein gomazko paleta txapelketetan). Partaidetza haundia dudarik gabe, baina ezin da gauza bera erran frontoira agertutako jendeaz. Eliminatorietara inor gutti ager-

tu zen eta finalera 20 bat lagun bertzerik ez ziren bildu.

Emaitzak

Eskuz, benjaminak:
Zubieta - Zelaieta 16;
Altzuguren - Madera 5.

Eskuz, alebinak:
Larretxea - Zubieta 18;
Aranibar II - Arretxea 14.

Eskuz, infantilak:
Retegi - Olazabal 18;
Saragüeta II - Almandoz 8.

Paletagoma, helduak:
Oiazabal - Zubieta 30;
Moreno - Sarobe 24.

Larruzko Paleta:
Garcia - Santamaria 35;
Lasaga - Unsiön 28.



Arpana txapelketan izen emateko epea hilaren 15ean bukatzen da

Beran eginen da Apirilaren 19an

Nafarroako Herri Kirol Federazioak urtero antolatzen duen Arpana edo trontzalari txapelketan izena emateko epea martxoaren 15ean bukatuko da.

Aurtengoan, arpana txapelketa, hiru maila

ezberdinetan banatuko da (lehen maila, emakumeak eta hogeit hamar urtetik behitiko mutilak -sub20-).

Herri kirolaren txapelketa hau Beran burutuko da datorren Apirilaren 19an. Ikuskizun bikaina izanen da.



Hamabostaldiko jokaldiak



Oiazabal Berako palista.

Berako XIX. pilota txapelketan garaipena lortu zuen gomazko paletan, eta dagoeneko 60 urteak pasatuak ditu. Adin hortan, horrelako sasoiari izatea ez da nolana hiko marka!



Mendiari sua ematen ibiltzen direnak.

Betiko kontua da urte sasoi honetan, larre bazterrak lehor-lehorrak daudenean. Ote eta larrak ez ezik, gehienetan, zuhazti osoak erretzen ari dituzte han-hemenka.

MERKATU TTIKIA

Etxebizitzak

• **Elizondon** pisua salgai. Giltxaurdi karrika 12, 3.pisua. Hiru logela, jangela, sukaldea eta bainua. 6.500.000 pztatan. 581017 ☎.

• **Lesakan**, lokalak alokatzen ditugu Erosle ondoan. 637404 ☎ Maldaerrea S.A.

• **Mediku** alargunak, Baztan-Bidasoaldean etxe bat alokatuko luke. Hila-beteko 35.000 pzta artio ordainduko luke. 451518 ☎

• **Etxalar**, Zugarramurdi aldean baserria alokatuko nuke (mendian isolatua). Geroago erosteko asmoarekin. Bitartekaririk gabe. 943-616072 ☎ (4,30-8) Imanol.

• **Baztan** aldean, ahal bada baserri bat edo bertzela pisua alokatu nahi nuke. 943-279894 ☎ (Eulali).

Lana

• **Lana** egiteko prest nago. Kamioi eta autobus karneta daukat. 637034 ☎

Denetarik

• **Ekipoak** alokatzen dira udalentzat, bertsolariantzat, mitinetarako, etabar. Laia musika dendara deitu. 631059.

• **Lesakan** lokal bat traspasatzen da. Deitu 10tik 1etara eta 5etik 8etara 637410 ☎.

• **Beran** 2 urteko zakur bat galdu da. Beltza. Ez da arraza garbikoa. 631316 ☎. Diruz eskertuko da.

• **Lesakan**, lauburu bat galdu dut, J. M. inzialekin. Aurkitu baldin baduzue, mesedez deitu 637246 ☎.

• **Nafarroako** Herri Kirol Federazioak zapata-dendekin "Dunlop" zapatilak erosteko konbenioa egin nahi luke. 450900 ☎.

Salerosketak

• **Sofa-ohatzea**, ia-ia berria, salgai 30.000 pztatan. 630552 ☎.

• **"Documentos"** 18 tomotako kolezioa eta ingeles kurtsoa (Lingua phone etxekoa) kasetekin salgai. 510379 ☎.

• **7 urteko** neskatxa barentzat bizikleta bat erosiko nuke. 631188 ☎.

• **Montesa H-7** eta Yamaha XT 350, NA-AD salgai. Biak egoera onean eta merke. 452292 ☎.

• **2,90 x 2,40** metrotako moblea salgai. Armario altuak, eskritorioa eta bi ohe tiki. Prezio oso onean. 61 07 91 ☎.

• **4 urtetako** asto ederra salgai. 61 50 16 ☎.

• **Minbrezko** mobleak salgai: armarioa, mesila eta apalak. 637818 ☎.

• **4 urteko** asto eder bat eta biko ahari bat salgai. Modu onean. 634170 ☎.

• **Ahuntz** bat eta bi antxume salgai. Deitu 513286 ☎. (Betelu).

• **Behiak** salgai. Batzuk ernari eta erditzeko puntuan bertze batzu. 453106 ☎.

• **Autokargadora** Europa markakoa salgai. 599045 ☎ (Pedro Jose).

• **Trial** motoa salgai. Montesa Cota 309, egoera oso onean. 637823 ☎.

• **Bi bitrina** ia berriak, erloju dendan erabilitakoak salgai. 63 04 19 ☎.

• **20 ardi** beraien bildotsekin salgai Saldiasko Masenea baserrian.

• **Artzai** zakurkumeak salgai. 504492 ☎

Harremanak

• **Goizuetako** Maribel mediku xarmantari zorionik beroena bere urtebetetze egunean. Autentikoak.

• **Lesakako** Amaia Larralderi: Zorionak atsua! Zure urtebetetzean 22 muxu "ipurditxo" polit horretan. 5 eta Potzon. (...noiz erran duzu konbidatu behar gaituzula?).

• **Leitzako** Nerea Erbitiri, zorionak eta segi beti bezela moñoña moñoña.

• **Etxalarko** "Komando Kageta" ko partaide barentzat: ohartu zarenez olinpiadak pasatu dira eta berdin segitzen dugu, baina borrokatuz lortuko dugu.

• **Iruitako** Patrirentzat: Polita, sinpatika eta nere bihotzeko puska. Musu bat. 11.

• **Goizuetako** Mertxeri zorionak. Ea gonbidatzen dunen kafe bat hartzera Juanaren etxera. Hire lagunak.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONUZ DEITU.

Testua:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA Tfnoa:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188



Zein da Bidasoa -
Leitzaran aldean
gehien irakurtzen
den prentsa?

ttipi-ttapa, noski.

Beraz, zure publi-
zitatea *ttipi-ttapan*.



Inbertsiorik onena



MOLINERO
PINTURAK

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak molda-
tuko dizkizugu eta gainera, bar-
ne edo kanpoalderako behar di-
tuzun pintura plastikoen arabe-
rako preziotan

**25 Kg. pintura erosteaga-
tik kamiseta bat oparizat**

Eztegara 19 -630240- **BERA**

Sorgiña Sagardotegia

Bertso bezalakoa da UDABERRIA

BERTSO AFARIAREKIN emaitza ONGIETORRIA

Martxoak 21ean Manolo AROZENA eta Jose Migel ARGIÑARENA

Izen emateko epea martxoaren 15rarte

ostatuan. Afaria 2.100 pztatan.

ETB eta Gu, zure zain gaituzu.

Telleria - NARBARTE- (948) 59 22 51



INFORMAZIOA:

Ezkalo Jauna
Tfnoa: 45 15 18
Doneztebe

ITUREN

•Borda 650.000 Pzta.

ALMANDOZ

•Etxaldea, borda eta
40.000m². Bidea,
ura, argindarra
•Leku eguzkitsua.
40.000m²ko lur
eremua.
24.000.000 Pzta.

BERROETA

•Moldatu beharreko
borda. 19.000m²ko
lur saila. Prezio
negozia-garria.

•Borda bat, eremu
zelaisuekin, ura,
bidea eta argi
indarra sartzeko
posibilitatearekin.

IRURITA

•Herri erdian,
600m²ko baratzea
duen etxea.
9.000.000 Pzta.
Prezisionegozia-
garria.

SUNBILLA

•Baserría.
60.000m²ko lur
eremua. Bidasoa
bazterrean.
Bizitzeko egokia.
100m²ko hiru
solairu. Donez-
tebetik 2 Kmtara.
26.000.000 Pzta.

•Txaleta. Kalefak-
zioa eta lur
eremua duena.
Alokagai dago.

NARBARTE

•Herriko alderirik
hoberenean apar-
tamentuak egiten
ari dira. Bertako
estiloan, harri eta
zurezkoa

ZUBIETA

•Luxuzko pisuak.
Kalefakzioa.
Aukera ezin hobea.
Etorkizunerako
inbertsioa. Elgorri-
gako bainuetxea
4 Km.tara. Donez-
tebe 6 Km.tara.

ELGORRIAGA

•Estreintatu gabeko
pisua. Garajea.

ERATSUN

•Baserría.
27.000m²ko.
6.000.000 Pzta.
Negozia-garria.

ARANTZA

•Estreintatu gabeko
luxuzko pisua.
10.000.000 Pzta.
•Baserría, borda
eta 40.000m²ko
lur saila.
7.700.000 Pzta.

URROTZ


•Baserría. Teilatua
moldatu berria eta
baratze ederra.
Trukaketak onar-
tzen dira.
7.500.000 Pzta.

DONEZTEBE

•Denbora guti barne
komertziorako
bajera eta sei
pisuko etxebizitza
eraikiko da.
Etxegilea Jose
Fausto Ostolaza.
Pisuen prezioa
10.000.000 + IVA;
bajerena 110.000
pzta. + IVA..

ETXALAR

•Urritzokieta
auzoan, bizitzeko
egokia den base-
rria. Eremu zelai-
tsua. Bi familien-
dako egokia;
baita sagardotegi
edo osasun etxea
antolatzeko.



MANUEL LANZ eta ASOZIATUAK

ENPRESA ASESORIA

- ❖ KONTABILITATEA
- ❖ FISKALA
- ❖ HEMENDIK AURRERA LABORALA
 - Nominak
 - TC₁
 - Lan kontratuak
 - Errekurtsoak

BERA

Eztegara 14
Tfnoa: 63 11 08

Aholku
osagarriak

IRUÑA

Luzrama 5 -Entreplanta- 6. bulegoa
Tfnoa: 25 93 84



ALMACENES ETXANIZ, S.A.

Lesakako
Iturria anaiak

ESKUALDEKO AUKERARIK HAUNDIENA

GRES ETA AZULEJOETAN

AZKEN MODELOAK ERA GUZIETAKO PREZIOETAN

Juan Arana, 3

Tfnoa: (943)

61 17 67

IRUN